

## 20/01 IRIZPENA

Maite Alonso, Presidenta  
Begoña Cabria  
Ainara Ibañez  
Aitor Idigoras  
Ana Marta Iriarte  
Mari Tere Ojanguren  
Idoia Pujana  
Lourdes Villardon  
Jone Unzueta  
Eva Blanco, Secretaria Técnica

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2021eko martxoaren 4ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Lanbide espezializazioko bost programa eta horiek baimentzeko eta irakasteko baldintza orokorrak ezartzen dituen Dekretu proiektuari buruzkoa.**

## I. AURREKARIAK

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak helburutzat du lanbide-heziketaren, kualifikazioen eta egiaztapenen sistema integrala ordenatzea, hala, eraginkortasunez eta gardentasunez erantzun ahal izateko gizarte- eta ekonomia-eskariei, hainbat hezkuntza modalitatearen bitartez. Orobat ezartzen du funts publikoekin sostengatutako prestakuntza-eskaintzak bizitza osorako prestakuntza ahalbidetu behar duela, eta igurikimen eta egoera pertsonal eta profesional desberdinei egokitu behar zaiela.

Lan esparruan, Autonomia Estatutuaren 12.2 artikulua dioen bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak dauka Estatuko legeria betearazteko eskumena, batez ere langileen kualifikazioa eta prestakuntza integrala sustatuz.

Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuak -Lanbide Heziketako Hezkuntza Sistemaren antolamendu orokorra ezartzen duena eta otsailaren 2ko 14/2016 Dekretu bidez aldatu zena- Euskadiko lanbide espezializazioko programak ezartzen ditu, Lanbide Heziketaren esparruan, eta beren balioa aitortzen eta akreditatzen du indarrean dagoen araudi markoaren barruan.

4/2018 Legean, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzkoa, V. Kapituluaren Lanbide Kualifikazio eta Espezializazioen euskal esparrua ezartzen du, gure lan-merkatuari erantzun ahal izateko, lanbide heziketako sistema orokorraren bidez.

## II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek hamaika artikulua dauzka, xedapen gehigarri bat eta azken xedapen bat. Era berean, eranskinetan jasota daude lanbide espezializazioko bost programen egiturak.

1. artikulua dio arauaren xedea programak erregulatzea dela, eta horietako irakaskuntzarako egiturak eta baldintzak definitzen ditu.

2. atalak arau honen xede diren programak ezartzen ditu, eranskinetan garatzen direnak.

I. eranskina: Mugikortasun Elektrikoa

II. eranskina: Auditoria Energetikoa

III. eranskina: Goi-Sukaldaritzako esperientzia gastronomikoen sorkuntza eta garapena

IV. eranskina: Osasun Mentaleko erizaintzako zaintza osagarriak

V. eranskina: Terapia Genikoko sendagaien fabrikazio industrialak eta kalitate-kontrola.

2. artikulua lanbide espezializazioko programen xedea azaltzen du.

3. artikulua programa horien garapena ezartzen du, jarduera txandakaturik lanbide heziketako zentroyen eta enpresen artean.

4. artikulua eskaintzaren baldintzak eta baimenak zehazten ditu.

5. artikuluan arautzen da heziketa-zentroyen eta enpresen arteko akordioak formalizatzeko prozedura.

6. artikuluan zehazten dira enpresa parte-hartzaileek bete beharreko baldintzak eta betebeharrak.

7. artikulua zehazten ditu ikasleak enpresan dauden bitartean duten egoera eta kostuen finantzaketa.

8. artikulua programen aseguruiei buruzkoa da .

9. artikulua zentro baimenduek garatu beharreko programazioak arautzen ditu, eta

10. artikulua ebaluazio eta ziurtagiriak emateko prozedura.

11. artikuluan irakasle eta inktoreei eskatutako baldintzak zehazten dira.

Lehen xedapen gehigarria irakaskuntza-hizkuntzei buruzkoa da.

Azken xedapenak dio noiz sartuko den indarrean agindua.

### III. BALORAZIOAK

Kontseiluak irizpenak eman ditu Lanbide-espezializazioko programak arautzen dituzten, bai eta programa horiek baimentzeko eta emateko baldintza orokorrei buruz agindu-proiektuei buruz (16/03 Irizpena, 18/06 Irizpena 19/01 Irizpena eta 20/02 Irizpena).

Agindu proiektu honek aipatutako bost programen egitura onartzen du, eta ez du aldaketarik egiten 32/2008 Dekretuan ezarritako baimentzeko eta irakasteko baldintzetan. (14/2016, otsailaren 2ko Dekretuak aldatua). Eranskinetan azaltzen diren programak aipatutako Dekretuko atalak eta egitura jasotzen dituzte.

Proiektu honetan esplizituki jaso da 10.6 artikuluan, lehen zioen adierazpenean jasotzen den erreferentzia: "Halaxe ziurtatutako programek, edonola ere, ez dute titulu edo ziurtagiri akademikoa, lanbide-ziurtagiria edo ziurtagiri partzial metagarria emango, eskumen horiek Kualifikazio Profesionalean Katalogo Nazionalean sartzen ez diren bitartean".

**Kontseiluak positiboki baloratzen du programa horiek arautzea, eta ez dio eragozpenik jartzen aztertutako agindu-proiektuari.**

Aurreko irizpenetan, Kontseilu honek programa horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko eskatu du. Ildo horretan, Plangintza eta Antolaketako zuzendariaren memoriaren laburpena jaso dugu jarraian, programa horien bilakaerari buruzko datu interesgarriak ematen dituena. Horrela, orain arte onartutako 24 programetatik 21 arrakastaz ezarri direla nabarmentzen da.

Gainerako 3 programei dagokienez, adierazi da programa horiek enpresa babesleen beharrianen ondorioz sortu direnez, une jakin batean, interesdunekin zerikusirik ez duten inguruabarregatik, programa horiek aurrera egin dezaketela edo ez dutela aurrera jarraituko.

Nabarmentzekoa da une jakin baterako onartzen diren programetako asko urteetan zehar errepikatzen direla, enpresetan premia dagoelako eta ikasle batzuk prest daudelako prestakuntzarekin jarraitzeko; hala, 2016an onartu ziren programa batzuek 5 promozioko ibilbidea daramate.

Hala ere, programa batzuk une jakin baterako onartu dira enpresa jakin batean, zentro espezifiko batekin, eta, horregatik, promozio bakarra osatu da.

Urteetan zehar programetan parte hartu duten ikasleak:

	16-17 ikasturtea	17-18 ikasturtea	18-19 ikasturtea	19-20 ikasturtea	20-21 ikasturtea
Programa kopurua	4	9	15	14	14
Ikasleak	85	114	209	143	156

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2021eko martxoaren 4an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA SAILBURUA